

BILERA MOTA: AUZOTAKO BILERA ARRAGUA

ZENBATGARREN SAIOA : 1

DATA:	HASIERA ORDUA:	BUKAERA ORDUA:
2015-11-03	19:38	21:05

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Juan Inazio Ansa, Iñaki Pikabea, Jexux Leonet, Agurtzane Lekuona, Eneritz Arbelaitz
-------------------	---

Herritarrak: 17		
16-30 urte: 1	Emakumeak: 6	Euskarazko aurkezpena: 8
30-50 urte: 3	Gizonezkoak: 11	Elebitako aurkezpena: 9
>50 urte: 13		

AKTALARIA: Agurtzane Lekuona

Gai zerrenda:

GAIA/JUSTIFIKAZIOA

ERABAKIA

1	Aurkezpena	Bilera elebitan egin da. Taldea aurkeztu eta bileraren egitura aurkeztu da. Balorazio orriak eta datuak jasotzeko orriak banatu dira.
2	Aurrekontuak 2016	Aurrekontuen lehen zirriborroa, orokorra, azaldu da lehenik. Sarrerak, kapitulo bakoitza eta bakoitzean dagoen kopurua aurkeztu dira. Ordenantza fiskalak eta 2016rako aldaketak ere azaldu dira. Gastuetan dauden kapituluekin gauza bera. 2016 rako inbertsio potoloenetarako proposamenak aurkeztu dira. Irizpide nagusiak Oiartzungo azpiegiturak mantentzera bideratuko direla azpimarratuz. Zorraren eboluzioa, 2009tik erdira murriztu dela azalduz. Juan Inaziok bankuko kredituen interesak jaitsi direla komentatu du. Aurrekontuen lehen zirriborroa dela esan da, azken bertsioa abenduan onartuko da besteak beste auzoetako batzarretan jasotako proposamenak jaso ondoren.
3	2015eko lanak (20:00tan hasi gara)	Lartzabal etxadiko aparkalekuen mugak jarri dira.



		<p>Xorrokalo geltokien markesinak hilabeteren bueltan jarriko dira.</p> <p>Ganboxa ingurua eta lartzabalgo aparkalekua txukun mantentzeko moduak bilatzen ari gara, orainarte udaletxeko lorategi zerbitzuekin, baina aurrera begirako moduak bilatu nahi ditugu.</p> <p>Herritar batek esan du 2014ko partidekin porteriak jarriko zirela esan zela, aurrekoek konpromisoa azaldu zuela baina ez dela ezer jarri. Eskaera historikoak jaso direla esan du Eneritzek eta horren harira 2016rako inbertsio proposamenak ekarri ditugula eskaera horietan oinarrituz.</p>
4	2016ko inbertsioak (20:10tan hasi)	<p>Urtero 20 000€ko muga izan beharrean 4 urterako ikuspegia hartuko dugu auzoetan egingo diren inbertsioetan, beti ere auzotarren beharretan oinarritutako inbertsioak izango direla azpimarratu da.</p> <p>Auzotar batek epeak zehaztu beharko lirakeela komentatzen zuen, 4 urte horien barruan jarraipen baten beharra aipatuz. Eneritzek argitu du behar adinatan jaitziko garela auzoetara orain arte bezala eta exekuzioaren jarraipena egingo dela.</p> <p>Ganboxako proiektua azaldu da planoak erabiliaz.</p> <p>Batek euskotrenen sarreran egoera txarrarekin zer egingo den galdetzen zuen. Beste batek proiektu horretako belardian haurrentzat zeozer egitea proposatu du. Gehitu dute bankuen beharra dagoela lorategian bertan.</p> <p>Lartzabal etxadian kirolgunearen eta aparkalekuaren proiektua aurkeztu da, planoaren laguntzaz.</p> <p>Auzotar batek haurrentzat jolasleku bat izatea beharrezkoa dela komentatu du. Beste batek kokapenari buruz orain parkinak dauden lekuan egitea egokiagoa ez ote den proposatzen zuen. Etxeak egiteko plana dagoenez ezingo da kirolgunea proposatutako lekuan jarri.</p> <p>Lur publikoak txukunduta geratuko lirateke eta lur pribatuak txukun mantentzeko bideak proposatu ditu Jexuxek, jabeei abisuak bidaliz edo udalak txukunduz eta gero faktura pasaz adibidez.</p> <p>Talaiako espaloiak eta lurritakoak</p>

		<p>garbituko dira, dagoeneko bideratuta dago.</p> <p>Bileran bertan bi proiektu potolo hauen artean zeini lehentasuna eman erabakitzea proposatu da.</p> <p>Jexuxek lehentasuna orden hontan ematea proposatzen du:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) lartzabalgo parkina 2) kirolgunea 3) ganboxa
5	Mantenu lanak	<p>-Ganboxaren aurrean bankuak jartzea</p> <p>-Beste banku batzuk beheko aldean</p> <p>-MRWren aurrean Piboteak jartzea, parkeraino sartzen baitira. Bandoa</p> <p>-Lehengo aldagelen gunea bota eta txukundu, arrisku gunea baita.</p> <p>-Ganboxako sarreran 20KM/hko muga dago, baina trafikoko seinale gehiago behar dira aurrerago, zebrabidea ere badago baina kotxeak abiadura handian pasatzen dira.</p> <p>-Zakur kakak jasotzeko ontzi gehiago jarri</p> <p>-Astensorearen beharra azpimarratu du batek, Fanderian bezala. Euskotreni presioa edo eskaera egiteko eskatu du.</p> <p>- Zubiondo ondoan auzorako aterpea, bota ala mantendu? Administratzailearekin kontaktatzeko gomendatu da, bizilaginekin adostutako erabakia izan behar du.</p> <p>Bizilagun batek esan du aurreko legealdian udala botatzekotan gelditu zirela. Erabakia lehenbailehen.</p> <p>-Zuriarraidik ganboxara bidean dagoen bidegurutzeari lurreko seinaleak pintatu.</p> <p>-Frontoian txukunketa lanak egin, zuloak, margoketa lanak.</p> <p>-Semajoroa: interbitente oso azkar jartzen da, oinezkoei gurutzatzeko denborarik ez die ematen. Diputazioari ala udalari dagokio?</p> <p>Laster egingo diren lanak azaldu ditu lñakik:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kimaketa lanak larrezabaletan, laster egingo dira - Aldeguna ondoko parkean ere bai - Larrezabaleta 9 ondoan, autopistaren ondoko terrenoan, kimaketa lanen beharra.

		- Pinpon mahaia jarriko da
6	Balorazioa	Balorazio orria bete dute bizilagunek eta batzbesteko emaitzak jarraian aipatu dira.

BALORAZIOA	PUNTUAZIOA
Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,3
Hizlariak: ondo gidatu dute bilera	8,4
Bileran erabili den metodologia	8,3
Herritarren asistentzia	4,3
Herritarren partehartzea	6,9
Saioa probetxugarria izan al da?	8
Egunaren egokitasuna	7,8
Orduaren egokitasuna	8,7
Lekuaren egokitasuna	8,4
Denera bataz beste	7,7

Komunikazio bideak	kop	%
Bandoa/kartelak	0	0
Irratia eta prentsa	7	30
Sare sozialak	3	13
Ahoz-ahoz	11	48
Udal aldizkaria	2	8,7